

# DESERTIFIKAZIOA



**A**zken bi hamarkadak azken milurteko beroenak izan dira eta joera hau mantenduz gero, prezipitazioak poloetara desplazatuko dira, eskualdeko klima aldatuko da, euri gutxiago egingo du latitude ertainetan, laborantzak lekuz aldatuko dira...

Zerk arindu dezake lurraren beroketa? Beste neurrien artean basoak mantendu, itsasoekin batera, CO<sub>2</sub>ren xurgatzaile nagusiak baitira. Gainera planetaren garapen jasangarriaren ezinbesteko atalak dira, izan ere, onura ekonomiko, soziokultural eta ingurumenezkoak ematen dizkigute.

Urtero iberiar penintsularen laurden bat bezalako baso

azalera desagertzen da munduan (Iturria: FAO) gizakiak eraginda: gehiegizko ustiaketa, legez kontrako mozketak, basoak nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lur bihurtzea, giza kokalekuen sorrera, meatze eta petrolio ustiapena, urtegi eta errepideen eraikuntza, espezie inbaditzaileak, baso-suteak, agroerregaienezko soroak, ekosistemen zatiketak eta atmosferaren kutsadura.

Euskal Autonomia Erkidegoan, basoek lurraldearen % 50a okupatzen dute, eta, aspaldiko partez, hostozabalen familiako landaketek pinu eta eukaliptoekin alderatuta, erdia baino gehiago dira (Euskal Herriko baso inbentarioa, 2005).

## Eta nik... zer egin dezaket?

Herritar moduan dituzun erantzukizunekin bete: arropa eguzkitan lehortzen duzun bakoitzean, bizikleta erabiltzen duzunean edo etxeko tenperatura ondo erregulatzen duzunean, energia zentzuz erabiltzen duzun bakoitzean, klima aldaketa mantsotzen ari zara.

Bestalde, argia itzaltzen ez duzun bakoitzean, etxea gehiegi berotzen edo hozten duzunean, edo jasangarriagoak diren aukerak baztertuta kotxea hartzen duzunean... klima aldaketa azkartzen ari zara.

Suteak ekidin, basoetako suteek CO<sub>2</sub> kopuru handiak bueltatzen dituzte atmosferara.

Basoko produktuak kontsumitzerakoan, bertakoak izatea ziurtatu eta FSC ziurtagiriarekin ahal bada.

Parte hartu zure inguruan antolatzen diren ekintzetan: hitzaldiak, zine-emanaldiak, zuhaitz landaketak edo sentsibilizatorako beste edozein ekintzatan.

Badaude beste proiektu batzuk, mundu osora begirakoak, eta parte hartu dezakezu, adibidez:

<http://www.un.org/esa/forests/2011/2011.html>

<http://www.unep.org/pdf/ourplanet/2008/sept/sp/op-2008-09-sp-www.pdf>

<http://www.unep.org/billiontreecampaign/spanish/index.asp>

Eta heziketaz ez gaitzen ahaztu, tresna garrantzitsua baita gizarteak benetako aurrerapenerako baloreak aldarrikatzeko eta benetako eta jasangarria den ekonomia alde lan egiteko.

2011 basoentzako urte ona izan dadin laguntzera animatzen zaitugu.

**Ziur egon beraiek ondo baino hobeto ordainduko dizutela!!!**